1. Kontuan hartu behar duzuna:

1. Orri txuria (DIN-A4)
2. Boligrafo urdina
3. Eskuineko goialdean: Izen-deiturak
   Data (euskeraz!!)
   Maila eta taldea
4. Gutxieneko luzera (DBH 1: 80 hitz, DBH 2: 100 hitz, DBH 3: 120 hitz, DBH 4: 150 hitz)
5. Eginbeharra: gaia errespetatu. Horretarako komenigarria da idazlana idazten hasi baino lehen eskematxo bat egitea.
6. Idazki-mota errespetatu, hau da, helburua (informazioa eskatu, aholkuak eman,...), mota (e-posta, iritzi-idazlana,...) eta tonua (formala / informala) kontuan izan.
7. Paragrafoak: informazioa paragrafoetan banatu behar duzu. Paragrafo bakoitza hasterakoan marjina zabalagoa utzi. Paragrafoen arteko distantzia pixkatxo bat handiagoa izan behar da.
8. Tarte bikoitza lerroen artean, zuzenketak egin ahal izateko.
9. Gramatika eta hiztegia: ikasturtean zehar ikasitako egitura gramatikalak eta hiztegia erabili behar duzu, idazlana aberasteko.
10. Puntuazio-markak erabili eta zuzen erabili (puntu, koma, e.a.).
11. Esaldien eta paragrafoen arteko lotura (juntagailuen eta lokailuen erabilera).

2. Egitura:

1. a) **Sarrera** (hiru edo lau lerrotako paragrafoa, idazlanaren luzeraren arabera): idazlanak ez dira inoiz honela hasten "... buruz hitz egingo dut...", "Nire ustez,... / Nik uste dut....", "Nire idazlana ... buruz da",... horretarako izenburua dago. Atal honetan gaia laburki eta modu orokorrean azaltzen da.

   b) **Garapena** (gutxienez bi paragrafo): idazlanaren atalik luzeena da. Paragrafo bakoitzean ideia bakarra garatzen da (zerrendak ez dira garapenak!!). Gaia "Nire asteburua" denean, ez duzu egiten dituzun edo dakizkizun ekintza guztien zerrenda egin behar, bi edo hiru ekintza azaldu baizik, hau da, zer, noiz, nola, non, norekin (baina ez 20 lagunen zerrenda),...

   c) **Ondorioa** (hiru edo lau lerrotato paragrafoa, idazlanaren luzeraren arabera): azken atal honetan zenbait aukera ditugu, idazlanaren gaiaren arabera: laburpen motza, azaldutako arazo baten konponbidea, aholkua, gomendioa,...

3. Zuzenketa:

1. Irakasleak akatsak eta akats motak adieraziko dizkizu, boligrafo gorriz.
2. Auto-zuzenketa: akats horien zuzenketa zuk egin beharko duzu, boligrafo berdez.
3. Irakasleak azken zuzenketa egingo dizu, boligrafo beltzez.
4. Hauek dira akatsei dagozkien laburdurak:
   - HG. – hiztegia (erabilitako hitza ez da zuzena: izena, adjektiboa, aditza,...)
   - ORT. – ortografia (hitza gaizki idatzita dago)

- DK. – deklinabidea (erabilitako deklinabide kasu marka ez da egokia edo oker idatzita dago)
- ASP. – aditzaren aspektua (aspektua ez da egokia edo oker idatzita dago)
- ADLAG. – aditzlaguntzailea (ez da zuzena)
- △ - zerbait falta da (aditza, izena, adjektiboa, puntuazio-marka, juntagailua,...)
- H. ORD. - sintagma osatzen duten hitzen ordena ez da zuzena
- E. ORD. - esaldiaren ordena ez da zuzena.
- GR. - gramatika akatsa (lokailuen edota juntagailuen erabilera, zehar galdera, zehar agintera, konpletiboa,...)

GOGORATU!!

1. **ESALDIAREN ORDENA:**
   (SUBJEKTUA) + OSAGARRIAK (noiz, non, norekin,...) + ADITZA (ad.nagusia + ad.laguntzailea)
   Adibidez: "Ni nire lagunekin Donostiako hondartzara autobusez joan nintzen."

2. **JUNTAGAILUAK (conjunciones) ETA LOKAILUAK (conectores):**
   1. Informazioa gaineratzeko:
      - Gainera: además
      - Halaber / Orobat / Era berean: asimismo. (formala)
      - Honekin batera / Horrez gain: además de esto (eso)
      - Ere: también (gehitu nahi dugun hitzaren atzetik)
      - Ere bai / Ere ez: también/tampoco (esaldiaren bukaeran)
      - Baita ... ere / Ezta ... ere: y también tampoco (niri perretxikoak gustatzen zaizkit, baita nire amari ere)

   2. Kontrastea eta kontrakotasuna:
      - Baina: pero
      - Dena dela / Dena den: de todos modos, sin embargo (ondoren koma behar dute)
      - Hala ere / Hala eta guztiz ere: sin embargo (ondoren koma behar dute)
      - Haatik / Alabaina: no obstante (formala; ondoren koma behar dute)
      - Edonola ere / Edozein modutan ere / Edozein kasutan ere: en cualquier caso.
      - Ordea / Berriz / Aldiz: en cambio, por el contrario (koma artean)
      - Ostera / Aitzitik: en cambio, por el contrario (formala; koma artean)
      - Nahiz eta (... + infinitiboa) / (... infinitiboa +) Arren: aunque

   3. Kausa-ondorioa:
      - Beraz / Ondorioz / Hortaz: por lo tanto, en consecuencia (koma artean)
      - Honenbestez / Horrenbestez / Hainbestez: por tanto, en consecuencia (ondoren koma behar dute).
      - Hori (hau) dela-eta: por eso, debido a eso (ello)

   4. Adibide ematea:
      - Adibidez / Esate baterako: por ejemplo (ondoren koma behar du)
      - Alegia / Hau da / Hots: es decir (koma artean)

- Bestela esanda: dicho de otra manera.
- Hori (hau) argitzeko: para aclarar eso

5. Distributiboak:
   - Batetik, ... - Bestetik, ... : por un lado ... por otro
   - Alden batetik, ... - Bestaldetik/Bestalde, ... : por un lado ... por otro

6. Konparaketa:
   - Era berean: igualmente (ondoren koma behar du)
   - Modu berean: igualmente (ondoren koma behar du)

7. Denbora:
   - Lehen: antes
   - Antzinean: antiguamente
   - Aldi berean: simultáneamente, al mismo tiempo (tiempo o conceptos)
   - Honez gero / Horrez gero / Harez gero: después de esto (eso, aquello)
   - Lehenik, ... / Bigarrenik, ... / ... / Azkenik, ... : en primer lugar, en segundo,...
   - Lehenengo eta behin / Lehenik eta behin: en primer lugar, antes que nada (ondoren koma behar du).

8. Laburpena:
   - Azkenik, ... : por último
   - Azken batean, ... : al fin y al cabo.
   - Labur esanda / Laburbilduz: resumiendo
   - Hitz gutxitan: en pocas palabras
9. Hasiera emateko esakuneak:
   - Esku artean dugun gaia, dudarik gabe, garrantzi handikoa da...: este tema es, sin duda, de gran importancia...
   - Irakurlea / entzuleak ondo dakienez... : como bien sabe el lector.
   - Ezer baino lehen...: antes que nada.
   - Azken bolada honetan sarritan entzun dugu ... -(e)la: últimamente hemos oido muchas veces que...
   - Gogora datorkit irakurri berria / entzun berria dudan zerbait: me viene a la memoria algo que he leido recientemente
   - Duela zenbait urte... : hace unos años...

10. Tarteko esakuneak:
    - Demagun / jo dezagun ... -(e)la: supongamos que ...
    - Aipa dezagun bidenabar ... -(e)la: mencionemos de paso que...
    - Guztiok dakigu ... -(e)la: todos sabemos que...
    - Horrelakoetan gertatu ohi denez...: como suele ser habitual en esos casos / esas situaciones ...
    - Horri guztiari gaineratuko / gehituko nioke/genioke: a todo eso le añadiría / añadiriamos...
    - Gatozen harira... : vayamos al grano...
    - Nire uste apalean: en mi humilde opinión
    - Gogora dezagun...: recordemos...

11. Amaiera ematekoak:
    - Bukatu baino lehen ... : antes de terminar... (ondoren koma)
    - Aurreko guztiak laburbilduz...: resumiendo todo lo anterior... (ondoren koma)
    - Laburbilduz...: resumiendo... (ondoren koma)
    - Azkenik...: por último... (ondoren koma)
    - Bukatzeko...: para terminar... (ondoren koma)
    - Ondorioz... : en conclusión, para concluir, concluyendo.... (ondoren koma)